

**12/2020 Ebazpena, Donostialdeko ESiko zuzendari gerentearena, balorazio batzordea izendatzen duena, Digestio-aparatuko atalburu lanpostua (endoskopietako arloa) betetzeko erakunde honetan.**

Zuzendaritza Gerentzia honen uztailaren 4ko 861/2019 Ebazpenaren bidez, deialdi publikoa iragarri zen, erakunde honetako Digestio-aparatuko atalburu lanpostua (endoskopietako arloa) lehiaketa bidez betetzeko (2019ko irailaren 17ko 176. EHAAn eta 2019ko irailaren 20ko 226. BOEn argitaratua).

Aipatutako ebazpenaren 5. oinarriak ezartzen zuena kontuan hartuz, zuzendaritza gerentziak Balorazio Batzordearen kideak izendatuko ditu.

Balorazio Batzordearen lehendakaria zuzendari medikoa izango da, eta batzordekideak honakoak izango dira: zuzendariorde medikoa, pertsonaleko zuzendaria (idazkaria izango da), eta hiru kide (horietako bat IVAPek izendatuta). Azken horiek hautagaiei eskatutako titulu eta espezialitatea izango dute, eta finkoak, estatutupekoak, funtzionario edo lan kontratadunak izango dira, kategoria berean edo goragokoa.

Titular den kide bakoitzeko ordezkari bat izendatuko da.

Azaldutakoagatik, eta Osakidetzaren Estatutu Sozialetako 15.1.e artikulua zuzendari gerentei ematen dizkigun eskumenez baliatuta (azaroaren 11ko 255/97 Dekretua), eta oinarriak betetzeko, honakoa


### **EBAZTEN DUT**

**Lehenengoa.**- Balorazio Batzordeko partaideak izendatzea, erakunde honetako Digestio-aparatuko atalburu lanpostua (endoskopietako arloa) betetzeko. Zerrenda I eranskinean jasota dago.

**Bigarrena.**- Ebazpen hau argitaratzea, Osakidetzako web orrian eta zerbitzu erakunde honetako intranetean.

Ebazpen honen kontra Osakidetzako zuzendari nagusiari zuzendutako gorako helegitea aurkeztu ahal izango da, jakinarazpena jaso eta, biharamunetik hasita, hilabeteko epean, betiere, kontuan hartuta Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea.

Donostian, 2020ko urtarrilaren 14an

 **ZUZENDARI GERENTEA**  
E. Pertsonaleko zuzendaria  
(53/2019 Ebazpena, uztailaren 24koa)  
**DONOSTIALDEA ESI**  
**OSI DONOSTIALDEA**  
**PERTSONALEKO ZUZENDARITZA**  
DIRECCION DE PERSONAL  
Izpta. Esther LITAGO SOLA

## I ERANSKINA

### Digestio-aparatuko atalburu lanpostuaren (endoskopieta arloa) Balorazio Batzordea.

#### Epaimahaiburua

Titularra: Miren Idoia Gurruchaga Arriola (zuzendari medikoa - Donostialdeko ESI)  
Ordezkoa : Ana Calvo Aguirre (Medikuntza Arloko Asistentzia Koordinatzeko – Goierri Urola - Garaiko ESI)

#### Idazkaria

Titularra : Esther Litago Sola (pertsonaleko zuzendaria - Donostialdeko ESI)  
Ordezkoa : Pilar Sánchez Garduño (pertsonaleko zuzendaria - Bidasoako ESI)

#### Lehenengo kidea

Titularra: Xabier Goikoetxea Iraola (zuzendariorde medikoa- Donostialdeko ESI)  
Ordezkoa: Adolfo Beguiristain Gomez (zuzendariorde medikoa- Donostialdeko ESI)

#### Bigarren kidea

Titularra: Eva Zapata Morcillo (Digestio-aparatuko zerbitziburua - Donostialdeko ESI)  
Ordezkoa: Juan Jose Vila Costas (Digestio-aparatuko atalburua – Complejo Hospitalario de Navarra)


#### Hirugarren kidea

Titularra: Angel Calderón García (Digestio-aparatuko zerbitziburua - - Bilbo – Basurtu ESI)  
Ordezkoa: Fernando Geijo Martínez (Digestio-aparatuko zerbitziburua - Complejo Asistencial de Salamanca)

#### Laugarren kidea (IVAPek proposatuta)

Titularra: Aitor Orive Calzada (Digestio - aparatuko zerbitziburua – Araba ESI)  
Ordezkoa: M<sup>a</sup> Jesus Suarez Regueiro (Digestio - aparatuko zerbitziburua – Ezkerraldea – Enkarterri - Cruces ESI)

Donostian, 2020ko urtarrilaren 14an

 **Osakidetza**  
ZUZENDARI GERENTEA  
E. Pertsonaleko Zuzendaria  
(53/2019 Ebazpena, urtarrilaren 24koa)

  
**PERTSONALEKO ZUZENDARITZA**  
DIRECCIÓN DE PERSONAL

Izpta.: Esther LITAGO SOLA